



Nerea SANCHO ESNAOLA

Sexologian eta bikote harremanetan espezializatutako psikoterapeuta

Jogurtak eta bikote harremanen artisauak

Autokarabanak ka-
lean aparkatuta dau-
den auzoan, babes
ofizialeko etxeak
daude. Eta iturri ba-
tean zure botilan ge-
ratzen den ur epela hustu eta fres-
koarekin bete aurretik, hobe
ziurtatzea benetan ura ateratzen
dela iturri horretatik.

Hori diot nik. Bakoitzak bere
ikasketa libreak ditu.

Badira pentsatzen dutenak ibilbi-
de luzeko harreman heterosexuale-
tan, emakumea berotzeko modua
gizona biluzik ikustea dela.

Baliteke.

Nik behatu dut, ordea, emakume AS-
KOTXO (eta gizon nahikotxo!) pizten
dituena beste zerbaite dela; ez ESTIMU-
LU bat, baizik eta ESZENARIO bat. Hau
da, harreman horretan eman daitekeen
lotura, kolaborazioa, intimitatea, elkar-
laguntza, eta... zuzenago... etxeko lanen
banaketa PAREKIDEA.

Feminista? Deitu nahi duzun bezala,
ERREALITATEA da. Ez da jarriko larru-
tan ez badago elkarbizitza parekiderik.
Ez zaio aterako.

Ahaztu pastillak, utzi dantza exoti-
koak. Eta egin zaitez etxeko MINISTRO.

Haurren zaintza (daudenean) eta
etxean egin beharrekoen minimoak
MAXIMOAK dira, egungo familien nu-
klearren egituran.

Bietako batek adolescente jarrera
hartzen badu, eta ZAIN badago, "ia bes-
teak zer AGINDUKO ote didan" (mar-
marti): "Moztu azkazalak txikiari/txa-
kurrari", "maindireak aldatu behar
dira", "zer iruditzen zaizu medikuekin
txandak antolatzen badituzu?"...
Desira badoa ihesi. Ni ez naiz zure
ama/aita. Kiosko hau biona da. Biok
heldu behar diogu, pentsatu, beharrak
detektatu, planifikatu, kontsultatu bai,
eta bete.

Bakarrik utzi nauzu, uzten nauzu,
egunero tantoka-tantoka. Orduan ez



Danger de Mort Distopia. SENSATHLON

gara ekipo bat. Orduan ez nago ESZE-
NARIO PAREKIDE batean.

-Kotxea garbitzera noa.

-Ez dago horren premiarik. Hori en-
tretenimendu bat da ORAIN. Fakturak,
garbigailua, fruta eta jogurtak erostea...
hori da behar dena.

COPY-PASTE egiten badakizu, ikasiko
duzu ardurak elkarbanatu eta ekipoa
egiten. Bikotekidea BESTE DIMENTSI-
O batean murgilduko duzu eta elkarrekin
jarraitzeak mereziko du, urtez-urte, ha-
markadaz-hamarkada. Bihur zaitez MI-
NISTRO. Agian garaiz zabilta oraindik.

Batzuetan, BIKOTE HARREMANAREN
ARTISAUAK behar dira horiek lantzeko,
bereziki egoera BERANDUEGI eta
URRUNEGI joan denean. Nork emango
du lehen borondate onaren keinua?

Hobe autoritatea eta errespetua ira-
baztea, boterea eta arrazoia baino.

Hobe samurtasunez jokatzeta, duinta-
sunez puztea baino.

Hobe ZUK ZEUK EGITEA LEHEN
URRATSA zure bikotekidea aldatuko
den itxaroten amorratuta geratzeta
baino.

Kontraintuitiboa? Bai.

Popularra? Ez. Zuzentasun politikoa
askatasunaren etsaia da.

Gehiago jartzen duzu arriskuan ez
baduzu ezer arriskatzen.

Zer pentsatuko dute besteek?
Zer inporta du horrek???? Benetan,
ez zaio inori inporta eta ez
du inork ezer egingo zuregatik.

Bestetik, batzuek KOKO zapo-
redun jogurtaren estrategia har-
tzen dute kontzientzia handirik
gabe. Horiek agian beranduegi
dabiltza eta ezingo dute ministe-
riorik lortu ezta artisauen lagun-
tzarekin ere. Adi!

Denok erosi dugu noizbait as-
kotariko zaporedun jogurten
kartoi handi horietakoa bat.

Marrubizkoak.

Limoizkoak.

Platanozkoak.

KOKOZKOAK.

Egunak pasatu ahala, limoizkoak,
ananazkoak... agortzen doaz, baina
kokozkoa jatera ez gara ausartzen. Ez
dakit ba. Zeozer badu ba.

Jogurtek irailaren 7an dute epemu-
ga.

Irailaren 6an kokozkoa bakarrik ge-
ratzen zaigu eta fruta hartzen dugu
postrerako jogurtaren orde.

Irailaren 7an hor jarraitzen du...

Irailaren 8a da. Iraungi egin da! Za-
karretara bota ahal izango dugu erru-
kirik gabe.

Bikotekide batzuek (ez biek, hala-
beharrez) harremana horrela trata-
tzen dute.

Utzikeria.

Arreta gutxi.

Eskaerei ENTZUNGOR egin.

Teknika hori ezagun-ezezagunegia
da.

Eta halako batean (ezustean edo!!?)
harremana hotza, urrunekoa eta
KONPONEZINA da.

Harremanari ZUZENEAN BUKAERA
emateko ausardiarik ez?

Bestearengan uzten duzu harrema-
na moztearen ardura?

Harremanari sakontasunez eta kon-
promisoz eusteko adorerik ez? •